

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

76. zenbakia

95eko irailak 8

Bertakoa eta kalitatezkoa



Azoka bereziak



Informazio eta harrera bulegoa: 80 17 05

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA BIOLOGIKOAREN I. AZOKA

Irailak 10 Zeraingo Herriko Plazan
(11-14:30 eta 16:30-18:30)

- Baserritar biologikoen produktuen erakusketa eta salmenta. Barazkiak, fruituak, gazta, ogia, etab.
- Zeraingo baserriko produktuak.
- Bolatokian jolasteko eta karobia martxan ikusteko aukera, trikitilariak, etab.
- Bisitako aukerak: Herri Museoa, Larraondo zerrategia, Kartzela, BTT zirkuitua, herriko produktuen denda, etab.

ANTOLATZAILEAK: BIOLUR GIPUZKOA
eta ZERAINGO HERRIA



ORDIZIAKO UDALA

Ordiziar guztiei eta egun horietan bisitan datozkigunei eta hainbat arazo direla eta gurekin egotarik ez dutenei festa alai eta zoriontsuak opa dizkiet.

Alkateak



MUJIKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Umeen arropa denda

**Udazken-neguko
denboraldia hasi dugu**

Santa Maria, 13

ORDIZIA

☎ 16 12 39

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



AGRIA

SABO



STIHL®

Jonsered

Banatzaile ofiziala

Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI

Tfnoa-faxa: 16 15 15

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Maketazioa:
Mikel Albisu.
Publizitatea:
Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Jon Aizpurua,
Izaskun Salazar, Aitziber Mu-
rua, Pilare Mujika, Iraida Mar-
tin, Joxe Manuel Zubizarreta,
Antonio Berasategi, Jon Mikel
Arano, Gabino Murua, Edurne
Albizu eta Rufino Iraola.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

**Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
dedun.**

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunk-
izunik.**

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Nekazaritza biologikoaren azoka Zerainen

Irailaren 10ean Gipuzkoako nekazaritza biologikoaren 1. azoka egingo da Zerainen. Biolur (nekazaritza biologi-koaren aldeko elkartea) eta Zeraingo herriaren artean antolatutako azoka. Bertan barazki, fruita, gazta, ezti etabar egongo dira salgai.

Orainarte Ordiziako eta beste zenbait azokatan pos-
tuak jarri dituzte Biolur-
ekoek, "baina azoka arrun-
tetan gu joaten gara jen-
dearengana, eskaparate ba-
tean bezala egoten gara,
jendea ez da asko kontura-
tzen zer ikusten duen. Zerain
bezalako herri txiki batean
berri, ikustera joango dena
interes batekin joango da".
Adierazi digu Xabi Akizu,
antolatzaileetako batek.

Zerain horretarako herri
aproposa ikusi dute, bat
ikusten bait dira helburu, ze-
regin eta jendearen inplika-
zioan. Nekazaritza biologi-
koaz gain, bertakoa ere

egongo da Zerainen, "oso
tarte txikia dago bien artean,
baina inoiz ez dira nahastu
behar. Nekazaritza biologi-
koaren ezaugarri nagusia
da, kimikoki ez dela tratatzen
ez landarea eta ez lurra. Lu-
rra zainduz, naturaren ziklo
eta legeak errespetatuz egi-
ten da. Azken finean hau, beti
egin den nekazaritza da,
baina gaur egun medio
gehiago dago lurra eta bere
oreka aztertzeke." dio Xa-
bik.

Nekazaritza ekologikoa
aurrera ateratzeko beharrez-
koa da gizartearen kont-
zientziazioa. Biolur-ekoen
ustez "Erosketak egiteko
garaian nekazal produktuen
prezioari bakarrik begiratu
gabe, kalitateari begiratu
behar zaio, gizakion osasun
eta naturaren orekari. Indar
gehiena duena eguneroko
eroslea da". Hau bultzatze-
ko hitzaldiak ere antolatu di-
tuzte (agendan informazio
gehiago).

Besteek esana

"Ez dakienarentzat, Gipuz-
koako Gobernadore Zibilak
'Indio' ezizena du eta jende
artean nabarmentzea gusta-
tzen zaio, protagonismoaren
bila ibili da beti.(...) Lazkao-
ko bi baserri miatu-saboteatu
zituzten. Amebi baserrian
ezker abertzaleko propaganda
egiten zela ez da oraingo kon-
tua eta horretarako proiektu-
reak, plastikoa, pintura, disol-
bentea eta horrelako tresnak
erabiltzen direla mudnu guz-
tiak daki.(...) Nola liteke bera
propaganda egiten ibiltzen
zen garaiko tresneria, 'polizia
operazio garrantzitsu bat'
justifikatzeko?"

Pitxu Urretabizkaiak,
Egunkarian, 95-IX-1ean.

Patxi Zubizarreta

"Bernardo Atxagak elkarri-
zeta batean esan zuen bazirela
idazle batzuk irakurle jakin
batentzat idazten zutenak,
baina beste batzuek familia
guztiak irakurtzeko moduko
liburuak idazten zituztela.
Idazle batzuek aitatu zituen,
eta horien artean, Patxi Zubi-
zarreta".

Ekaineko HABEtik hartua

Joan Inazio Iztueta

"Zein litzateke omenaldi
egokiena Iztueta eta Albeni-
zentzat? Ziur asko geure bu-
ruei egin geniezaiokeen ede-
rrera ere: bizitzan dantza ika-
si".

**Jose Inazio Ansorena txis-
tulariak, "Egunkaria"-n
95-VIII-18an.**

*Eusko Jaurlaritza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Final Feliz?

Aurtengo udan Gipuzkoako Gozogile Artisauen elkarteak Ordizian egindako tarta eder bat aurkeztu zuen. Nik egunkarien bidez izan nuen albistearen berri. Argazkietan hantxe azaltzen ziren, tartaren inguruan, gozogileak, denak pozik eta alai. Baina niri aurpegia muturtu egin zitzaidan piskat. Izan ere, tarta horretan hizki batzuk zeuden idatzita, gaztelez eta euskaraz. Gaztelezkoa ondo zegoen idatzia: El Final Feliz. Baina euskarazkoa, ordea, gaizki: Zoriontsu Bukaera.

Zergatik gaizki? Euskaraz ize-nondoa edo adjektiboa izenaren ondoren jartzen da ia beti: liburu gorria, neska aparta, galtza motzak, nekazari trebea, langile fina, etxe dotorea, hizlari aspergarria, bukaera zoriontsua... Beraz, lehendabizi izena eta atzetik adjektiboa. Horrela da gehienetan. Ez beti. Adjektiboa *-dun* atzizkiarekin osatzen bada, adibidez

euskaldun, erdaldun, bizardun, adardun... adjektiboa izenaren aurretik nahiz atzetik jar liteke: gizon euskalduna edota euskaldun gizona. Biak daude ondo. Gauza bera gertatzen da jentilizioekin ere: *ataundar neska* edota *neska ataundarra*. Hor ere ez dago akatsik. Baina "Zoriontsu Bukaera" horretan, hor ez dago ez jentiliziorik, ez *-dun* atzizkia duen adjektiborik. Beraz, "Bukaera Zoriontsua" da ordena zuzena.

Nik ez dut duda arrastorik. Gozogileek, tarta hori egiteko, behar bezala erabiliko zituztela osagai guztiak, baina euskara ere zaindu beharreko *osagaia* da, eta oraingoan behinik behin kale egin dute gozogileek. Gozogileena baldin bada errua behintzat.

Azkenik esan, eskutiz honekin ez dudala inor mindu nahi. Ni ez naiz nor inor mintzen hasteko. Protesta egin nahi dut. Hori besterik ez. Beraz, hurrengo batean gauzak txuku-

nago egingo direlakoan, eta egin ezean, beste norbaitek protesta egingo duelakoan, agur t'erdi.

Jon Imanol Iturrioz (Ordizia)

Juan Auzmendi

Juan Auzmendi ataundarraren lagun min bat kexu azaldu zitzaigun ekainaren 23ko GOIERRITARRA irakurri zuenean. Ataungo kronikan "Juan ere alkate izan genuen Franco hankagainean zenean" idatzirik azaldu zen. Juanen lagunaren arabera, ez dakienak gauzak erabat alderantziz ulertuko zituela eta, zera argitzeko eskatu digu: Franco hankagainean zela, Gipuzkoako alkate demokratiko bakarra izan zela ataundarra. Barkazioak irits bitez mina egindako lekura.



OLANGUREN INSTITUTUA

"Ikastetxe euskaldun integratzaile eta publikoa"
IKASKETA ERTAINETAN ESPEZIALISTA
Erabat euskaldun eta dohainekoa

Izen emateko epea irailaren 6tik 11ra
Kurtso hasiera: irailaren 26an
☎ 88 08 62 - 66 ORDIZIA



KUKO

Jantetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.
Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA
Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI



Munduko
hizkuntza
zentruen
erakunde
handiena

inlingua

HIZKUNTZAK

5 urtetik gorako haurrentzako talde bereziak
Cambidgeko azterketarako prestaketa

ORDIZIA
Elkano, 8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre, 8
☎ 72 22 23

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:	094
Errepideen egoera:	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellessa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	429742
HIES-SIDARI buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



**Elixabet Urteagak
emana**

**Kixket taberna
Ordizia**

TXANPINOI PINTXOA

Osagaiak: moldeko ogia, egindako tomatea, txanpinoiak, piper berdeak, gazta (urtutzen dena), oliba olio eta baratxuria.

Zartagi batean olio batean berotzen jarri eta baratzuria gorritzen denean txanpinoiak txiki-txiki eginga bota

eta goxo-goxo egiten utzi. Moldeko ogi zati bat hartu eta bi zatitan egin. Horieta-ko bakoitza tomate pixka batekin igurtzi. Ondoren gainean goilarakada bat txanpinoi jarri. Gainean bere formen moztutako piper berde frijitu bat eta gainean neurri bereko gazta jarri. Beroan jatea komeni da.

Bota bertsoa



**Mikel Aranburu
Gaia: Eguna ala
gaua?
Doinua: "Aita izena
kanta beharrak"**

Eguna edo gaua zein hartu egin didate galdera baina gazteok ez al daukagu juergazaleen tankera tabernarikan taberna gabiltz beti batetik bestera juergan zenbat ta ilunpegoan hobeto ibiltzen gera egunez egin liteke baina lotsatu egiten gera.

Kotxea hartu ta normalean festetan dauden herrira gauean garaiz atera eta egun argiz erretira festetan ere egunez zerbait baldin balego sikira baina egunak diferenteak badauzkagu eta tira gau-pasa baten ondorengoak politak izaten dira.

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



**-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR**

**-ESKAILERAK
NEURRITARA**



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

GANBARA

estudio juvenil

Gazte altzarietan adituak

Urdaneta,56

ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 88 71 21

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Gazte batek zenbait lan egingo lituzke: soldadore, eraikuntzako pioi, nekazaritzan... Trailer eta autobus karneta ere badu. 88 67 32. Alberto.

Etxebizitzak

□3 lagun behar ditugu Bilbon pisua osatzeko (Deustuko Unibertsitate ondoan). 882938 (Egoitz).

□Urretxun kanpokaldera ematen duen etxe bat dago salgai, egoera onean eta amueblatua. Dei iluntzeko 8etatik aurrera, 72 22 03.

□2 lagun behar ditugu Barzelonan pisua osatzeko (Arco de Triunfo ondoan dago). Dei 883310 edo 881337 telefonoetara Ainhoa edo Naiaragatik galdetuz.

□Ganbara bat salgai Tolosako alde zaharrean. Berritzeko. 42 05 36.

Salerosketak

□Autokarabana salgai. Mercedes-130, poliester, dutxa, sukaldea, frigorifikoa e. a. Txasisa eta motorra berriak ditu, 800.000 pzta. 450697 Jokin.

Egutegiak

BERTSOAK

✓ Ordizia:

Irailak 10, J. Agirre, I. Lazkano, J. Lizaso eta X. Amuriza gai librean, Herri Antzokian, 22:30ean.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 8, "Batman", 7:30 - 10:15.

Larunbata 9, "Batman", 7:30 - 10:15.

Igandea 10, "Batman", 5:00 - 7:30 - 10:15.

Astelehena 11, "Batman", 7:30 - 10:15.

"Gazteentzako zine emanaldia"

Irailak 7, 'La Ciudad de la Alegría', 7:30.

Irailak 15, 'El niño que gritó puta', 7:30.

Irailak 21, 'Olivier, Olivier', 7:30.

HITZALDIAK

✓ Zerain:

Irailak 8, 'Nekazaritza eta Ganaderitza Biologikoa' -ri

buruzko hitzaldia Kultur Etxean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Irailaren 8tik 17ra bitartean, Rafael Lasagaren erakusketa Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

✓ Ordizia:

Irailaren 15a bitartean, Susana Muniain, Idurre Ugalde eta Jaione Salinasen margo-erakusketa Barrenan.

Irailaren 15a bitartean, 'Euskal tradizioko jaiak' izenburudun erakusketaren 2. zatia.

JAIK

✓ Beasain:

IGARTZA-LOINATZ AUZOKO JAIK

Ostirala 8, 18.30etan meza (gailetak eta ardoa). 19.00etan txistulariak eta buruhandiak. 22.30etan "Markeline" antzerkia. 24.00etan Basajaunekin dantzaldia.

Larunbata 9, 10.00- eta 13.00etara igeriketa. 15.30etan mus txapelketa.

16.00etatik 17.30etara haur jokoak, toka eta igela. 17.30etan futbitoa. 22.30etan mozorroak. 23.00etan dantzaldia Haritza taldearekin. 24.00etan dantza lehiaketa. 6.00etan kantontzilo laisterketa.

Igandea 10, 12.15etan buruhandiak. 14.30etan bazkaria txarangak alaiturik. 18.00etan herri kirolak. 19.00etan dantzariak.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 10, Txindoki.

Irailak 17, Besaidera mendi-irteera.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 17, Kanpazar-Besaide-Santa Ageda.

Idiazabalgo mendizaleak:

Irailak 10, Opakua-Entzia.

GOARDIAKO BOTIKAK

Irailak 7: Cuesta; *8*: Arriola; *9-10*: Laurnaga; *11*: Urbizu; *12*: Atorrasagasti; *13*: Azpilikueta; *14*: Jauregi; *15-16*: Azpilikueta; *17*: Cuesta; *18*: Jauregi; *19*: Arriola; *20*: Urbizu; *21*: Atorrasagasti.



INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu gama berezia

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

☎ 199300 - 199330

Faxa:199270

GAZTEENTZAT

IKASTAROAK antolatu ditu Goierriko Lanbide Eskolak. Ikastaroak basogintza, autoen txapa eta pintura, automozioa eta bereziki neskei zuzenduriko konfekzioa dira. Ikasturtea urrian hasiko da datorrn urteko ekainerarte luzatuko da. Ikasturte hauetako batean parte hartzeko betebeharrak ondorengo hauek dira: Goierri bailarako udalerriren batean erroldatuta egotea; langabetua izatea; eta 16 eta 20 urte bitartekoa izatea. Eskaera orriak Goierri Lanbide Eskolan dituzue. Argibide gehiago nahi izanez gero, Goierriko Lanbide Hastapenak, Goierri Langintza Eskolan duen bulegora zuzentzea nahiko da edo 889200 telefonora deitu.

GAINTZAKO V.

DANTZA ASKATU TXAPELKETA ospatuko da datorren irailaren 30ean, gaueko 10:30ean, Herriko Plazan. 14 urtetik gorako edonork har dezake parte. Zozketa egin ondoren bikote parte hartzaile bakoitzari Fandango eta Arin Arina bat joko zaizkie trikitilariak lagunduz. Herriko usadioaren arabera jantziak egon beharko dute. Erritmoa, elkartzea, pausoak eta itxura hartuko dira kontuan. Parte hartzaile kopurua 10 bikotekoa izango da. Sariak: lehenengoa-arentzat 16.000 pezeta eta txapela eta zapiak; bigarrenarentzat 13.000 eta trofeoak; hirugarrenarentzat 10.000 eta trofeoak eta 4. rentzat 8.000 pezeta. Beste partaide guztiei 6.000 emango zaie, Izena emateko epea 26ra bitartean egongo da zabalik, 8:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Telefonoa 88 95 64.



Gaztainak, azalora eta mandarinak

Bertako gaztainak izan ziren nobedade nagusi asteazkeneko azokan. Kiloa 325-350ean saldu zen. Horrekin batera, azalora buruak ekarri zituzten Baliarrain aldetik, (150-200 pezetan bakoitza). Aurreko asteetan ere izan zen fruituetan nobedaderik eta zer erosi-rik: urrak (300-350), basakana (300-350), pikuak (250-300), marrubiak (500) eta klase askotako sagarrak (90tik hasita eta 200 pezeta bitartean), udareak (160-250) eta iazko intxaurrak (400-500).

Barazkietan, urteko babarrunak, txuria eta gorria lekan 500 pezetan saldu zen kilo, eta beltza 500-800 bitartean. Aletutako babarrun beltza berriz, 1.000-1.200ean. Baba txiki berriak, txuria 175ean eta beltza 250ean; le-

kak 250 eta 350 bitartean; tomateak gora egin zuen (150-200) eta piperrak 300ean.

Kanpokoetan, mandarinak izan ziren nobedade, 290 pztan. Mahats txuririk ere azaldu zen, 175ean.

Abereei dagokienean, joan zen asteen ehiza hasi zela esan beharra dago. 3 tortola ekarri zituzten Arama aldetik. Bestalde, arkumea zertxobait merketu egin zen. 14 buru 675-700 bitartean saldu ziren.

Perretxikuetan, onddo ugari azaldu ziren: 100 bat kilo (kanpokoak) eta 3.000 pezetan saldu ziren. Bertako kilo t' erdi onddo ere bai (3.500ean). Xixa horiak, 15 kilo, 2.000 pezetan. Eta amanita cesarea edo arraultza gorringoa, kilo bat, 3.000n.



Gazta etxeko esnez egiten duten Euskal Herriko 130 artzaiek osatutako elkarte. Zerbitzu nagusiak:

- Laguntza teknikoa
- Gaztandegi birmoldaketa
- Produktu eta materialeen hornikuntza
- Promozio eta salmenta ekintzak

Kale Nagusia, 28 behea

IDIAZABAL

☎ 18 71 29

**EUSKARAZ
BIZI
EUSKARA
BIZIAN**

BARRENA EUSKALTEGIA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE IKASTAROAK

MATRIKULA: Irailaren 11tik 29ra

BULEGO ORDUAK: 10:00 - 12:00
16:00 - 19:00

ARGIBIDE GEHIAGO: 88.12.80 telefonon

HABEREN dirulaguntzak



**Joxe Manuel
Zubizarreta,
Goimen-eko teknikaria**

**“Lehenago
gauzak,
egoerak
poliki-poliki
aldatzen
baziren, orain
urte gutxi
behar dira
oinarri
sendoenak
hankaz gora
jartzeko”**

Gipuzkoan baserriak duen egituragatik, hau da, lur gutxiko ustiapenak eta produkzio dibersifikatuarekin (azken hau aldatzen egon arren), salmenta zuzena da -azokak- baserriko produkzioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko modurik egokiena, eta zenbaitentzat euren produkzioa errentagarria bihurtzeko era bakarra.

Hala ere, denok gara gure herri eta bailadetak azoken krisiaren testigu. Azoka horien azpiegituraren hobekuntza eta promozio ezak eta erostunen erosteko ohitura aldatzean, azoka asko egoera larrian ikusten ditugu. Eta hori baserritarrak berak dio: %45aren ustez azken bost urteotan salmenta gutxitu egin da. Hala eta guztiz ere, ia denak (%93a) aurrerantzean ere azoketara joaten jarraitzeko asmoa azaldu dute. Datu hauek eta beste asko, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz herriko azoketaz burututako estudio batetan jasotzen dira. Eta egia esan, datuak adierazten dutena ez da etorkizunari baikor begiratzeko modukoa:

- Ordiziara etortzen diren 75 baserritarretatik, erdiak 55 urte baino gehiago ditu; 45 urte azpitikoak 11 izanik. Gainera hauetatik herenak bakarrik (%30) ikusten du ziurtatua jarraipena.

- Orain gutxi arte baserritarrek ez zuten konpetentzia haundirik, baina merkatua kanpora zabaltzeak eta hipermerkatuak irekitzeak eragin haundia izan dute bertako produktoreengan.

- Produktuen aurkezpene eta puestoen itxura ez da askotan onena.

- Azokaren akzesioak eta azpiegitura ez da hobetu azken urteetan.

- Erosleari dagokionez, %75a 55 urtetik gorakoa da, kasu honetan ere, erosle gaztearen falta nabaria delarik. Honen arrazoi nagusiak bi dira: emakumearen eranspena lanera eta erosketa ohituren aldaketa, hipermerkatuetan zentralizatuz eta aste guztikoak eginez.

Azaldutakoaren arabera, badi-rudi azoken istorioa 50-60 urte-tako belaunaldiaren kontua dela,

Ordiziako azoka

bukatzeaz dagoena eta ez datorrela bat gaurko gizartearekin (ez baitago oinordeko erosle eta saltzailerik).

Ez dut uste horrela denik. Herriko azoken hiltzea etorriko da bere horretan uzten badira. Lehenago gauzak, egoerak poliki-poliki aldatzen baziren, orain urte gutxi behar dira oinarri sendoenak hankaz gora jartzeko. Eta ematen diren aldatetara berregokitu beharra dago, beste sektore ekonomikoetan eman den bezala, nahiz eta batzuetan, tamalez, traumatikoa izan.

Baina berregokitze prozesoa nora bideratu?; nori zuzendu behar zaio salmenta?; zein produktorekin kontatuz?

Martxa honetan, azokak ez dira izango eguneroko erosketarako erreferentzia (hipermerkatuen alde) eta beste bi alderdi indartuko dira:

- Kalitatezko produktuaren erosketa: gazta, kontserbak, sasoiko idarrak, lekak... Horretarako baserritarra bera izan behar da eroslearen eskaeratarako egokitu behar dena, kalitatea indartuz, aurkezpene zainduz eta eskeintza zabalduz (barazkiak zatituta eskeinitz edo kontserban...).

- Aisialdi eta turismoarekin loturikoak: sozialki duen garrantzia aprobetxatuz, inguru eta biztanlegoa erakarriz.

Ikuspegi honen inguruko bi inizatiba berri ezagutzen dira eta orain artean emaitza baikorrak jaso dituztenak:

- Donostialdeko azoka ibiltaria. Hiri haundien biztanlegoa aprobetxatuz (Donostia, Hernani, Irun...) hilean behin, larunbatean, 15-20 baserritarrez osatutako azokak ospatzen dira, produktuen eskeintza ahalik eta zabalena eskeiniz: barazkiak, ardi-behi eta ahuntz gaztak, loreak, lore lehorrak, pateak... Tarteka egitera-

koan eroslea aparteko gastua egiteko prest azaltzen da.

- Tolosako azoka bereziak. Hilean behin ospatzen direnak, baita. Promozionatzen den generoa beti ere bertakoa ez izan arren, larunbatero joaten diren baserritarrak, ekintzak erakartzen duen jendeaz baliatzen da bere generoa saldu eta ezagutzera emateko.

Ildo beretik, Ordiziako azoka indartu asmoz, udaletxearen inizatibaz, hainbat bilera ospatu dira Goimen Elkarte eta Goieki garapen agentziarekin batera. Bertan, baserritarrek aipatutako estudioan azaltzen zuten behar nagusiak aztertu dira:

- Bertako produktua saltzeko eremua desberdintzea %85-ak eskatzen du.

- Bertako produktuaren identifikazioa %88-ak proposatzen du, baina marka komertzialik gabe.

- Azoken promozioaren beharra baserritarren %88-ak eskatu zuen.

Guzti honen ondorioz, ondorengo proposamenak luzatu zaizkie baserritarrei euren kontsideraziorako:

- Bertako produktuen salmenta eremua nahiko definituta dagoela kontsideratu da.

- Bertako produktuen identifikazioa, baserritarrek direnei mahai-zapia eta identifikazio plaka jarriaz egitea.

- Azokaren promozioa berriz: Argitaratuko diren triptikoen bidez. Erosketarako baserritarrei banatuko zaizkien Ordiziako azokaren poltsen bidez. Eta tarteka aparteko azokak eginez.

Bi bilera egin dira baserritarrek orain arte eta emaitza eta partaidetza ona izan da, azokara normalki etortzen diren 75 baserritarretatik 50ek inizatiba honetan partehartzeko asmoa azaldu dutenez. Gainera, bilera hauek beste hainbat kezka eta proposamen jasotzeko balio izan dute, azokaren antolaketaren hoberako.

Ekimen puntualak izan arren gauzak mugitzen hasita daude. Espero dezagun, denon artean hasiera honi bukaera on bat emateko gai izatea.

Txandaka

Gure lurraren gaitzak

"Gipuzkoa bezalako probintzia politekin industri infernu batzuk egin izan dira, gaizki industriadzea munduan sekula gertatu ez balitz bezala". Julio Caro Baroja zenaren hitzak dira, gizon modernoak egin-dako "geozidio"- etako bat salatuz.

Eta munduko beste leku batzuei gutxi begiratu izan diegun bezala, geuretik ere kosta egiten zaigu lezioak ikastea. Lehen industriak edozein zirriztutan sartu genituen; orain kaminoak egiten ditugu parajerik ederrenak erdiz erdi harrapatuz eta, Goierriko zabaletan, txale-tak perretxikuak baino ugariago ari dira irteten.

Industria, sikiera, jende askoren lanbide gertatu da, baina bistakoa da gutxik duela horrelako etxetxoak egiteko aukera. Eta ez dirua falta duelako bakarrik; kabitut ez gara egingo eta. Nekez ikasten dugu gure lurralde hau txikia dela.

Don Julio maisuak zioen, erraza goa dela gaitza nabari denean salatzea, aurrez igartzea baino; eta are zailagoa, gero, gaitza kentzea. Ez dakit gaitzaren zein fasetan ibiliko garen, baina, hasteko, Goierri baserri huts bat dagoen bitartean, etxe berria egin nahi duena, hura zaharberritzera derrigortuko nuke.

Antonio Berasategi

Inkesta

Zertara etortzen zara Ordiziako azokara?



Alberto Calvillo
22 urte, kaldereroa
ordiziarra

Amonari laguntzera eta paseatzera. Erosketak amak egiten ditu eta nik paseatu bakarrik egiten dut. Bukatzeko "pote" batzuk ere hartzen ditut. Baina oporretan bakarrik dut etortzeko modua.



Txemari Garmendia
30 urte, irakaslea
lazkaotarra

Aspaldi etorri gabe nengoen eta hemengo giroa ikustera etorri naiz. Erosketarik ez dut egiten, oraingoz amak egiten ditu lan horiek. Perie ikusi, trago batzuk hartu eta etxera.



Ageda Alustiza
64 urte, etxeoandrea
ordiziarra

Asteko erosketak egitera. Fruta, arraultzak, berdura... Garaiko produktuak erosten ditut. Oporretan, jendea ikusmiran ibiltzen da, urtean zehar berriz, berdinak ibiltzen gara jeneroa erosten.

Bitxikeriak

Koldo Zubeldia zaldibitarak Zaldibiako "zaharrenei" entzundako esamoldeak inguratu dizkigu txoko honetarako.

*Putrea abade
belea sakristau
urrezko opilek
harritzko zizkilek
aupa mutilek*

*Jan bai jan
ase bai ase
guk bai noski
zuek bai behintzat
zerbait baduzue
guk bai behintzat
zuek bai noski.*



ORDIZIAKO GARAGARZA PLAZAN

Eraikuntza berria: apartamentu, etxebizitza
eta terraza handidun atikoekin
Lokal komertzial eta garajeak
1. kalitateko eraikuntzak

PROMOTOREA:

GOI-ETXE S.A.

Filipinas, 13 - behea

☎ 88 49 50

ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Ba al dakizu?

DETENTZIOAK izan ziren abuztuaren 20ko goizaldean Idiazabalgo Goardia Zibilaren kontrol batean. Zaldibiko Oskarbi Jauregi, Urko Galarraga eta Iker Atxotegi izan ziren detenituak, ustez kotxean molotov koktelak zeramatzatenean. Gobernu Zibileko iturrien arabera, "Y taldea" osatzen zuten, eta Goierriko talde politikoen egoitzak erasotzea zuten helburu. Epailearen aurretik pasatu aurretik, Donostiako Antiguako Goardia Zibilen koartelean lehenengo eta Madrilen ondoren izan ziren. Oskarbi kallean da 250.000 pezetako fidantza ordaindu ondoren, beste biak Alcalako kartzelan daude. (Zaldibiko kronikan duzue berri gehiago) Bien bitartean, Goardia Zibilak Olaberriko Ertzille baserria miatu zuen. Argider Mujika gaztearen bila joan ziren bertara, baina ez zegoen etxean. Lazkaoko Amibi baserria ere miatu zuten eta pankartak egiteko zenbait material eramane zuten bertatik. Bi baserrietako bizilagunek "jokaera basatia" salatu zuten.

KONTXI ALDASORO mutiloarrak irabazi du bi urtez jarraian, joan zen igandean Legazpin ospatu zen Gipuzkoako Gazta Txapelketa. Ordiziako iazko gazta txapelketa ere berak irabazi zuen. Gabiriako Amelia Jaure-



gik berriz, artzain onenaren saria eraman zuen. Bestalde, urtero omentzen dituzten artzainen artean, hiru goierritar genituen: Jose Sukia 'Tio Joxe' zaldibiarra (87 urte), Jose Inazio Munduate ordiziarra (85 urte) eta Martin Lezea 'Bola Leku' (84 urte) Astigarretan jaio eta Zaldibian bizi dena.

MIGEL IRIZAR ormaiztegiarra Peruko Callao eskualdeko gotzain izendatu du Vatikanok. 61 urte ditu Irizarrek. 23 zituela egin zen apaiz.

1972an Yurimaguas eskualdeko gotzain-bikario apostoliko izendatu zuen eta bertan lan egin zuen 17 urtez, 1989an, Callaora gotzain laguntzaile lanak egitera bidali zuten arte.

ARISTRAIN BERRITUA. Lanak bukatu ondoren, abuztuaren 7an jarri zen berrito martxan Olaberriko enpresa. Berritze lan hauek 11.500 milioi inbertitu ditu eta al-tzairutegi berrituarekin urtean 925.000 tona "palankila" ekoiztu ahal izango

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



LANCIA ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



GURASO ELKARTEEKIN "GOIERRI EGITEN" ARITUTAKO GESTOREA

Migel Calvillo: "Bailadako arazoei, erantzun globalak"

Ataundar jatorrikoa den Migel Calvillo Imaz ordiziar gestore eta politika-gizon ezagunak 60 urte ditu eta laister doa jubilatzerara. Garai batean Guraso Elkartearen mogimenduetatik eginiko lana eta egungo garai nahasiotako politikaz duen ikuspegia ezagutzeko, historia egiteko momentu aproposa iruditu zaigu.

Gerraondorengo urteak

Migelek ondo gogoan ditu "maki"ak, "Division Azul"... Calvillotarrak ezker-tiarrak ziren tradizioz, langile mogimendua eta Erregimenaren aurkako planteamendua betidanik bizitutakoak. Horrek markatu zuen eta berehala zen J.O.C.-en (kristau langile gazteak), errepresio garaian beste ezer legalik ezean, Elizaren babespean. Rikardo Alberdi eta Eugenio Arregi apaizak gogoratzen ditu Ordizian lanean langileen eskubideen alde. 14 urte arte ikasi eta CAFen sartu zen lanera 20 bete arte. Handik Aristrainera. Bitartean JOC-en anparoa ibili zen, sorospen kutxa bat jarri, kuotak kobratu eta 50 eta 60etako lehen grebak sostengatzen: Orbegozo, Bernedo, Estanda... (Itsasondoko mehatzari kaleratuentzat Iñaki Larrañaga, Andres Salegi, Xanti Garmendia, e.a.-ekin). Eliz-atari eta lantokietan biltzen zen dirua, orduan ez baitzen INEM-ik.

Halako mogimenduak zirenean Koartela gainean egoten zen, solidaritatea txikitzearen. Lehen aldiz 53ean atxilotuta eraman zuten deklaratzera



Migel Beasaingo koartelera, 18 urterekin. Emigrante-etorreraren garaiak ziren, desarrollismoarenak, orduko saltsak ezagutu zituen: Beasaingo kalean egurra partitu zenekoa, Burgosko Auziak eragindakoak.

Guraso Elkartearen lana

Gerrak eragindako egoera etentzen hasten zen. Hortik abiatu ziren Guraso Elkarteak, marku legalaren zirrizkuak aprobetxatuz, Ikastola bera... Askatasunik ez eta erreibindikazio piloa zituzten langileek: elkartzeko eta grebarako eskubideak, komenioen negoziaketak, nominak, soldadak, jardnako ordu-jeitsiera (CC00 eta larunbat 'ingelesa' gerroztikoak dira)... Migelek nahiago izan du bere buruari ez baino garai bateko G.E.-en mogimenduari ematea protagonismoa, berauek (bera tartean zela) egin baitzuten benetako zubi-lana, militantzian, herriaren alde. Beti aldarrikatu izan du eta segitzen du: Goierriko arazoei, bailara osotik erantzuna eman


behar zaiela. Gaurko gazteei eta ahaztuzaleei iruditzen ez bazaie ere, Goierri L.E., Zumarragako Ospitale Komarkala, Orkli, e.a. ez dira hor egon betidanik, burruka latzen ondorio eta konkistak dira. Bere ustez, Goierriko zenbait prozesu ezin litezke ulertu G.E.-rik gabe.

Goierri Lanbide Eskola

Eskola hau sortzerakoan bi planteamendu zeuden: institutu modukoa egin edo, langile-zonaldea zenez, eskolatik ateratako mutikoei heziketa industrialia ematea. 14 urterekin sartzen ziren gatzetxoak lanean eta enpresek ez zuten eskolarik. Batzorde batzuk sortu eta fabriketara joaten hasi ziren halako eredu erreibindikatuz. Aristrainek lurra jarri zituen Granjan, bera lehen presidente izatekotan. Calvillo 7 urtez egon zen bertako batzordean eta gurasoei esker (langileak eta enpresariak kuotak ordainduz) egin zen posible Goierri Eskola. Aipatu eskolan istilu ugari izan zen 70. urteetan: "Tentsioa politikoa zen, hori baitzen talde guztien (abertzale eta besteen) kaptazio-gunea, mintegia". Eskolarena bezala, beste gai batzu ere bideratu zituzten guraso elkarteok. Esaterako, "Siadeco"k eginiko Goierriko garapenaren ikerketa ederra.

Eskualdeko Ospitalea

Ondorio on asko atera ziren hortik. Bat, deszentralizazio sanitarioaren eta Goierri beheko 45.000 lagunentzako zentruaren behar nabarmena. Azterketa serio bat egin eta, S.S.-ak hemen sanitatzean gastatzen zuena baino askoz gehiago jasotzen zuela frogatuz, garaiko



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7

☎ 88 79 72

BEASAIN

Sanitateko zuzendari orokorrari esijitu zitzaion. Hor ere bi planteamendu: edo zentru erraldoi bat Donostian edota txikiagoak inguruagorako. "Burruka batean hasi eta 7-8 urteetan ibili ginen gure jarrerarekin, Martin Jauregi, Fermin Imaz, Txurruka, e.a. la 40.000 sinadura jaso genituen Goierriko Udal, G.E. eta fabriketako arduradunenak barne". 77an, garaiko ministroak sanitate lege orokor berria egin behar zuela aipatu zuenez, maila goreneko gestioak egin zituzten Migel eta konpainiak (CAFeko Egoskozabal eta Aristraingo Fermin Imaz) pare bat bixita egin zioten ministroari. Frankismoaren azken ostikadak nozitzen genituen orduan.

Azkenean Zumarragan egin zuen Urola eta Goierriko 70.000 biztanlerentzat Ospitalea garaiko Euskal Kontseilu Orokorrak. Sanitate deszentralizazioa guztiz eman ez bazen ere, balorazioa ona egin digu ordiziarrek.

Beste ekarpen batzuk

Guraso Elkartearen "egoskor"tasunei esker lortu izan dira gauza gehiago. "70.eta 80.eko gizarteko beste bindikazio bat zen emakumearen promozioa. Hemen gizonentzat bazen lana, emakumeentzat ez hainbeste", aitortzen digu. LKA Ordizian jarri berria zen eta, "langileen arteko iniziatiba zirenez kooperatibak, G.E.-etatik eskualdeko aurrezkiak bertan geratu/garatu zitezela eskatzen zen. Komisio bat antolatu eta Arrasateko Taldeko buruengana (Gorroñogoitia, Mongelos, Ormaetxea...) jo genuen. Berauek diru-kapitala jartzeko prest zeuden, baina giza kapitala eta aurrera hori eramango zuen jendea eskatzen ziguten". Goierriko "enbajadoreak" J.B. Garmendia, D.Gurrutxaga, J.M.Garmendia, J.A.Imaz, J.Larrea, J.Aramendi, A.Urkizu, I.Larrañaga eta Calvillo bera

ziren. Mailegu bat eskatu zuten hauek hemen biabilitate estudio bat egiteko, Egaña liberatu eta egin zen, "Copreci" (Gaurko "Orkli", koop. bezala eratua, Ordiziako indartsuena egun) Aretxabaletatik ekarriz.

Goierriko edozein herrira ekartzea zen asmoa, eskualdea entitate bat zela oso kontutan izanik. Beasain, Lazkao eta Ordiziako zenbait auzoetako (Bustuntza-eta) etxeak egitea ere gurasoek bultzatu zutela gogorarazten digu.

Azken urteak gogoan

Aipatutako urteetan mogida horietan ibiltzeak inguruotako klase guztietako jendea ezagutzea suposatu zion Migeli, eta Madrazorekin batera "Bandres" gestoria ireki zuen, Bandrestarren babesa erabiliz. "Trantsizioa" etorrita Udalean Gestora berria eratu zen, l. esperientzia demokratikoa zen eta hori egon zen. Gerroztik beste legegintzaldi batean ere egon da Ordiziako Udalean, EE-rekin (10 urte). Gauza asko ondo egin zituela uste du: Hego Biala, Zaharren Erresidentzia, Kultur Etxea eta Barrenako Parkearen erosketa markesari (Madrilera joanda negoziatuta), ordiziarren bizitza-kalitatea hobetzeko ahalegin handia eta merke aterea, Abaria, Oiangu, Majori, Frontoia, e.a.-ekin ekipamendu aldetik Ordiziak bultzada handia hartu du Migelen iritziz, baina orain Beasain ari zaio aurreratzen, zerbitzu eta komertzioan oraindik eusten badio ere.

Gaur eta egun

Guraso Elkarteak ia desagertu dira. Gaur egungo alderdiak ez ditu oso efizienteak ikusten. "Ukabilka bagabiltz idea politikoak direla eta ez dugu aurreratuko. Ikusten duzu, uste dut gaiei heltzeko espontaneitatea galtzen ari garela, 'tiki-miki' a dela medio. Denoi

ajola zaizkiagun gaietan politika alde batera utzi behar genuke. Orain, orokorrean, alderdietako jendeen kalitateak defizitak ditu. Balio duen jendea ez da sartzen udaletan, batzordeetan, e.a. Sartzen direnak gehiago entregatu beharko lirateke zereginetan, herria garatzeko". Politika, helburuak lortzeko tresna beharko lukeela uste du eta ez galerazteko, ideologia desberdinak direla eta.

Egungo krispazioarekin ez da erraz ikusten aterabiderik. Triste samar aurkitzen da Migel. Lazo urdinarekin ibiltzeagatik entzutea ere tokatu zaie. Yo-yo-en heriotza gertatu zenean, halere, gauzak gordinago zeudela uste du. Gizartea "plurala" dela dio eta denok kabitzen garela; denek dutela adierazpen askatasuna eta ea zein den nor inori kargu hartzeko bere pentsakera dela eta. Berak errespetatzen duen bezala besteen iritzia, berea errespetatu dadila eskatzen du. "Ni ez naiz joango besteen manifestazioaren aurrean jartzea. Oso itsu gabiltza denok ere. Pausu honetara, edo pausoz aldatzen dugu edo gelditu eta erreflexionatu behar dugu. Tentsio eta ezinbizi hau... Diktaduraren kontra genituen idealen aurkako zentzuan dihoazen arazoei irteera balidoak aurkitzea zaila da, baina horizontea garbi dugu. Eta esperantzarik gabe, mundua kontzentrazio zelai ikaragarria izango litzateke, buru-gaisotasunentzat aproposa. Edo atera-ezin honetatik ateratzen gara edo gureak egin du". Bukatzeko, PP etorriko balitz eta estuago egoteagatik independentzia edo gizarte mota hoberantz aurreraka egingo dugula inork uste balu (zenbat eta okerrago hainbat eta hobeto) oker dagoela dio Migelek. Motibuak baditu, bizitutakoak bizituta.

 Jon Mikel Arano

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



Ramon Aseginolazaren sagar txapeldunak

I diazabalgo Kalbario Behekoa baserriko Ramon Aseginolazak altxor aparta du benetan. Soroei irtenbidea eman asmotan lehenengo briñoiak eta ondoren sagarrondoak aldatu zituen. "Hasiera-hasieran briñoiak izan nituen, izugarri ematen zuten. Baina orduan nobedadea zen hemen eta ez zen saltzen. Orduan, orain dela dozena bat urte, sagarrondoak eta udareondoak sartu nituen", esan digu Ramonek. Emaztea eta biak jo eta ke aritzen dira sagarrak zaindu eta saltzen.

Hektarea t'erditik gora ditu. Klaseak zenbat dituen, "ez dakit, 50en bat edo". Frantzia aldetik ekartzen ditu nobedadeak. "Urtero nobedadeak ekartzen ditut proba egiteko. Behartuta nago, bezeroei gustatzen zaien jakiteko eta zenbat produzitzen duen ikusteko". Sagarren "sekretuak" ere handixe ekarri zituen. "Frantzia egon nintzen denbora batez, nik lagun bat neukan 13 hektarea sagar eta 7 hektarea briñoi zeuzkana. Nere aita bezala izan zen hura, eta sagarraren sekretuak berak erakutsi zizkidan. Lehenengo, hemen zer gustatzen zen, 30 bat klasetik gora ekarri nituen, onantsekoenak zirenak. Onantsekoenak zirenetan ikusi dut zeintzuk gustatzen diren gehien". 'Red Star' eta 'Rey de reinetas' omen dira gehien saltzen direnak. Beraz, gustoen arabera, "azeptaziorik ez daukana kendu eta azeptazioa dutenak jartzen ditut". Dena den, gustoak aldatu egiten dira Ramonen esanetan. "Garai ba-



tean "reineta grisa" oso azeptatua zen, baina orain ez du hainbestekorik. Ez txarra delako, beste klase batzuk etorri eta horiek gehiago gustatzen direlako baizik".

Kanpokoa nahiago

Gauzak honela, sagarrondo baten iraupena galdetzean zera erantzun digu Ramonek. "Nik ez dakit sagarrondo batek zenbat iraungo duen. Azeptatua baldin bada, gehiago iraungo du arbolak, baina ez bada gustatzen, kendu egingo dut. 50 urtetako sagarrondoak ahaztuta daude. Sagarrak ale hobea ematen du".

Beste gauza askotan bezala, kanpoko sagarra bertakoa baino gogokoagoa omen du erosleak. "Bertako sagarra kalitate handiagokoa da, arbolan heldutako sagarra izaten baita. Kanpoko saltzaileek baino merkeago saltzen dugu, baina hala ere kanpokoak azeptazio gehiago izaten du". Hemengo

klima gainera egokia da oso. "Orain, harria egiten badu dena izurratuko du eta kitto. Baina horrek ez du esan nahi klima egokia ez denik".

Ekainaren bukaeran hasi eta azaro amaiera bitartean izaten da sagarren salmenta. Beasain, Ordizia eta etxean bertan saltzen dituzte. "Ez daukat ideiarik ere urtean zenbat kilo saltzen ditugun", aitortu digu idiazabalarrak.

Sekretua

Ale dotoreak, sanoak, neurritz berdintsuak, inbidia ematen dituen horietako aleak ditu Ramonek. "Sekreturik ez da. Lehendabizi arbola gobernatu egin behar da urtean zehar, gero arbola loratu egin behar da, eta loratzen den garaian komeni da lorak fekundatzea, ale bihurtzea. Gehiegi hartzen baditu, kendu egin behar, neurri edo limitazioa du. Ale gehiegi hartuz gero, kaskarragoa izango da alea. Ekilibrioa behar du. Orduan urte batean asko ematen badu arbola batek, hurrengo urtean, arbola nekatua egongo da, lore gutxiago izango du eta gainera lora hori ahula izango da. Fekundazioan garrantzitsua da lorea fuertea ateratzea. Arbola ahula ikusiz gero, neguan tratamendu berezia eman behar zaio, hurrengo urtean lorea fuertea etortzeko".

L.A.

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 - behea
 ☎ 88 19 50 ORDIZIA

INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
 DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 880446 Faxes: 161407 ORDIZIA



Irailak 9, larunbata:

18:30ean: Joxe Migel Barandiaran plazan herri kirolak: herri arteko txapelketaren finala.

22:30ean: Herri Antzokian bertso jaialdia. Bertsolariak: J. Agirre, I. Lazkano, J. Lizaso eta X. Amuriza.

Irailak 10, igandea: Oiangun erromeria

9:30ean: Ordiziako Txistularien kalejira.

11:00etan: Oiangun, erromerian parte hartuko dutenentzako pintxo eta ardoa. Bertsolari gazteen saioa.

12:00etan: Barrena Kultur Etxean, Lazkao Txiki IV. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa.

12:00etan: Oiangun, bikoteen arteko haurren mailako dantza txapelketa.

13:30etatik 14:30etara: Oiangun trikitilarien jardunaldia.

16:00etatik 17:00ak arte: Oiangun haurrentzako jolasak eta toka txapelketa.

17:30ean: Oiangun bikoteen arteko helduen mailako dantza txapelketa.

19:00etatik 21:00etara: Trikitilariak.

Sariak kalitateari

Felix Goiburua segurarrak irabazi zuen Ordiziako Gazta Txapelketa famatua. 77 gazta aurkeztu zituzten guztira, 29 ketuak eta 48 ketu gabeak. Aurreko urteetako irabazleen arteko txapelketari dagokionez berriz, lehenengo saria hutsik geratu zen, bigarrena, Kontxi Aldasoro mutilorrek (iazko irabazlea) egin zuen; hirugarrena Guillermo Zugazua Opakuakoak (92ko irabazlea). Bitxikeria bezala, aipatu, Alfredo Landa aktore ezaguna izan zela besteak beste epaimahaian. Gaztatan gehiegi ulertzen ez badu ere, gazta asko gustatzen omen zaio.

Barazki lehiaketan, Baliarraingo M. Jesus Mujikari eman zioten lehenengo saria, bigarrena Anoetako Jesus Artolari; eta hirugarrena Beasaingo Jesus M. Txintxurretari.

Fruituetan, Idiazabalgo Ramon Aseginolazak irabazi zuen; bigarren Zaldibiko Jesus Irazustabarrena izan zen; eta hirugarrena Antzuolako Kontxi Izagirre. Kanpoko fruitu lehiaketa Gatikako Jose Etxeberriak irabazi zuen.

Eusko Oiloaren txapelketan, ordiziarrak izan ziren jaun eta jabe. Joseba Insaustiren lotea izan zen onena. "Maradun" onena, ere Insaustirena izan zen; eta "Lepagorri" onena Francisco Quirosena. Sari berezia Joseba Insaustiri eman zioten.

Ganaduetan, Pirinaika arrazetan, Idiazabalgo Urbizu Berri baserriko Prudentzio Urkia izan zen irabazle nagusia. Frisoi arrazan berriz, Lazkaoko Iztueta baserriko Iztueta Elkartea.

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37

MERCERIA • LENCERIA

Arantxa

MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDIARAN ENPARANTZA, 3 - Tel. 88 76 15

ORDIZIA

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrialia
- Bulego altzariak

Tfnoa: 88 77 90
Mallotz- 25. Pab.

Faxa: 88 82 67
ORDIZIA



MARTINEZ

Jatetxea

Santa Maria, 10

☎ 88 06 41

ORDIZIA

80 URTEZ GAZTA-SALTZEN ORDIZIAKO ARANZEGI BASERRIKOAK

Hiru belaunalditako gazta Udaletxe azpian

Lehenengo urte haietan Josefa Albisu, ondoren Manuela Garmendia eta gaur egun Pepita Arizmendi, bere senarrarekin batera, aritzen dira asteazkenero gazta saltzen. Ordiziako Udaletxe azpian egon dira hiru belaunaldiak. Laugarrena ere bidean da, "oztopo gehiegirik jartzen ez badizkigute behintzat".

Amona Manuelak 14 urte zituen hasi zirenean (gaur 96, eta bixkor-bixkor). "Aita txerri tratantea zen eta Santanderrera joaten zen txerri bila. Ni aitarekin joan nintzen. Halako batean, hango saltzaileak bi zaku gazta ekartzeko eta ekartzeko hasi zitzaion esaten aitari. Aitak ezetz eta ezetz esaten zue-nez, niri hasi zitzaidan esaten. Aitak ezetz, baina azkenean ekarri egin zituen. Aita beldurrez zegoen etxeko lan-nez gain, amari gaztak saldu behar zituela esateko. Baina amak gustora hartu zuen, aproba egingo zuela. Horrela, perira joan eta 10 ez beste guztiak saldu zituen. Kontentu emakumea, ni baino lehen preparatzen zen gaztak saltzera joateko. Irabazia poliki izaten



Josefa Albisu.

zen, jateko baino gehiago", gogoratu digu amona Manuelak.

Urbasaren salbatzaile

Gustora guztiak. Hala ere, Santander urruti zegoen zaldi eta gurdiaekin gazta bila joateko. Orduan Urbasa edo Nafarroa aldera jo zuten. "Ni nintzela medio salbatu zen Urbasa, ia hilen zegoen, gaztarik ez zuten saltzen hango artzainek", adierazi du amonak. "Ur-

basako gaztak ezberdinak izaten ziren. Urbasako zati batean, zati eguzkitsuan, belar luzeagoa, itxia ateratzen da. Eta beste batean, motzagoa, airosoa. Eta artzainek uste zuten belar luzea zela hobe, baina belar motzago-tan bazkatutako ardi esnearekin egindako gaztak askoz ere hobeak izaten dira", gaineratu du.

Garaiak aldatu dira eta gazta bera ere bai. "Urteko lehenengo arkumea san-josetan, martxoan probatzen zen. Api-

Arkupe
tapizegia

Tupizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta Osagarriak
J. M. Barandiaran Plaza
(Gudarien Etorbidea)
Tel. 88 00 84
20240 ORDIZIA

OIANGU

TABERNA

Euskalerria z/g
Tfona: 88 30 03 Ordizia

ARANTXA
taberna

*Pintxo eta
ogitarteko
bereziak*

☎ 88 72 46

Ordizia kalea z/g ORDIZIA



JCS & BEL

Presio altuko
solariuma

ILEAPAINDEGIA
Azken teknika
eta nobedadeak

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

rilean mendira joaten ziren eta orduan esaten genuen maiatzako gazta zela onena. Orain ordea maiatzako gaztarik ez dugu nahi. Eguberrietarako arkume asko kentzen dituzte, eta azkeneko esneak izaten direnez, gaztak ez dira onak ateratzen", azpimarratu digu Pepita Arizmendik. "Orain itxura aldetik politagoak dira baina, lehengo gazta goxoa zen, eskuz lan gehiago egiten zelako". Bestalde, "pentsa ezazu, gaur Denominacion de Origen Idiazabal izena fabrikako gaztari ematen zaio. Eta artzain gaztari, gure abizena eman behar izaten diogu", gaineratu du.

Borroka eta borroka

Kexu azaldu da Pepita, asko borrokatu behar omen da gazta saltzetik bizi nahi izanez gero. "Nik konpetentzia sanoari ez diot beldurrik, besteek ematen badute guk ere emango baitugu. Baina alde batetik hemengo produktuak laguntzeko kanpainak egiten dira baina jartzen dituzten oztupoak gero eta handiagoak dira. Alde guztietatik mina egiten ari dira. Patentea ordaindu eta Sanitatean sartu nintzen, eskubide guztiak edukiagatik, edozein aitzaki txikirekin etortzen dira guri oztupoak jartzera. Bertako produktuak saldu ezinean gaude. Nahi duenak kanpokoak erosiko du, baina bertakoa erosi nahi duenak aukera hori izan dezala. Izorratzen besterik ez dira ari", esan du.

Asteazkenetako azokan ez dute gehiegirik saltzen Pepitaren esanetan.



Manuela Garmendia.



Pepita Arizmendi, bere senarrarekin batera..

**"Ni nintzela medio
salbatu zen Urbasa,
gaztarik ez zuten saltzen
hango artzainek"**

"100 gazta saltzea zer da? Ezer ere ez. Gehiena zuzenean banatzen dugu dendetara". Gaztasaltzaileak izatez gain, gaztazale amorratuak dira familiako guztiak. "Aitak hainbeste gazta ez jateko esaten zidan, aspertu egingo nintzela eta. Baina ni beti gogoarekin gelditzen naiz. Aitak, ordea, Urbasatik gaztaren bat guri-guri etortzen zenean, libra erdi bat jaten zuen eta orduan aspertu egiten zen. Ni ez", aitortu digu Pepitak. Arantzegi baserrian egin dute inoiz gaztarik. "Oso onak gainera. Garai batean Urbasako artzainak behera jaitsi eta apopilo egoten ziren baserrietan. Askotan ardi-esnea sobratu eta guri ematen ziguten. Amak (Manuelak) handi-handiak egiten zituen eta nik berriz txikiak. Ama zukutzen ari zen bitartean, nik jan egiten bainuen".

Gazta onaren sekretua

Urte askotako esperientziak erakutsitakoaren arabera, hona hemen Pepitak gazta ona egiteko emandako xehetasunak: "esnea 36-37 gradutan egon eta eguraldi freskoa behar da. Polita izango litzateke jaitzi eta berehala gazta egitea. 'Baño marian' berotu behar izaten da esnea, eta galdu egiten du. Gazta saldu aurretik bi hilabete pasatu behar dira. Ardi gazta esne gordinarekin egiten denez, germenak hil egiten baitira denbora horretan. Gazta fuertea nahi duenak berriz, urtebete itxaron beharko du".

 Loinaz Agirre

iÑABE ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829 - 882875

ORDIZIA

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

Urdaneta, 29
ORDIZIA

☎ 88 04 47

ORDIZIA

Obrak Herri Antzokian

Konturatuko zinetenez hesiez inguratua dago Herri Antzokia abuztu hasiera ezkerotik. Denek galdetuko zenioten zeuon buruei zer demontre gertatuko zen. Ba tira, Sabino Zeberio adierazi digunez biga batzuk egoera txarrean daudela besterik ez da gertatzen.

Jakina da urtero hila-beteko oporrak hartzeko ohitura dutela, baina aurtengoan luzatu egingo da etenaldi hau, analisi batzuren ondoren irregulartasun batzuk topatu bait dituzte. Hain zuzen, Nadal kartoitegian uralita kentzen ari zirela analisi batzuk egin eta biga batzuk nahiko gastatuta zeudela ikusi zuten. Bigaok zaharrak izaki hezetasunak erabat ahuldu eta prebentzio gisa ingurua hesitzea erabaki zuten. Hain zuzen karteldegia dagoen toki inguru horretan omen daude arazoak, jendea ibiltzen den inguru horretan.

Orain helburua bigak garbitu eta berindartzea izango da eta horretarako hilabete eskasarekin nahiko izango dutela esan digu Herri Antzokian la-



nean aritzen den Sabinok. Urrialdean irekiko da beraz berriro Herri Antzokia.

Rugby-zelaia Trebijanon

Askotan izan dugu mintzagai rugby-zelaiaren arazoa. Azkenik udalak irtenbidea aurkitu duela dirudi eta hori sinpleena izan dela esan liteke. Urtetan gaiarekin bueltaka ibili ondoren 25 milioi erabiliko ditu udaletxeak Trebijano berritzeko. Iazko urriaren 25ean onartu zen proiektua "inpas" egoera

batean geratzen da, beraz (ikus Goierritarren 68. zenbakia).

Egokitze lanak hasiak daude dagoeneko. Lur berria botea dute eta aldagelak erabat berriztatze-koak omen dira. 95-96 denboraldia hastear dagoenean, beraz, zelairik gabe egongo dira rugbylariak eta ez dakigu oraindik Altamiran arituko diren edo iaz bezela kanpora joan behareko duten euren partidua jo-

katzera. Zelaia badirudi Eguberrieta-rako eraikia egongo dela.

Kale berria

Ordizia berrikuntza ugari jasaten ari da azken urteotan. Eta oraingoan kale berri baten albistearekin gatozkizue, hain zuzen ere Kale Nagusia eta Goen kalea lotuko dituen. Argazkian ikus daitekeenez kale Nagusitik sartuz, eskailera batzuk igo eta "Txanketa" Plazan izango zinateke berehala.

 Aitor Calvillo

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfinoa eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfinoa.: 88 89 53

ARAMA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA


Usurben giro ezin hobea

Usurbemendiko jaia giro eta umore ezin hobean ospatu zen joan asteburuan. Ohizko herri kirol, bertsolari (aurten larunbatez Aitor Sarriegi eta Mikel Aranburu, eta igandez, S. Lizaso eta A. Egaña), bazkari, joku eta trikitilari izan zen bertan. Omenduak ere izan ziren, eta aurten, San Andres baserriko Joxe Mari Saldaña eta Juanita Sarriegi senar-emazteak izan ziren. Azken urteotan bezala gainera, Jokin Leunda ere omendu zuten. Bazkariarekin hori bai, denak gustora, nahiko sahiets janda. Astelehenean izango ziren komeriak bat baino gehiagorentzat.

Aitzgorri Mendizale Elkarteak

Aitzgorri Mendizale Elkarteak antolatutako irteerak aurtengo 2. epea hasi dute. Urteroko ohituraren arabera, ibilaldiak igandero egiten dituzte bi epeetan zatituz: otsailetik ekainera bitartean irteera sorta bat egiten dute eta irailetik urrira bitartean bigarrena. Iraileko lehen asteburuan beraz Beasain Mendin ospatzen den erromeriara joanez hasi dituzte. Baina ez beasaindarrok jarraituko genukeen bidea eginez; Zumarragaraino trenez joan eta bertatik oinez etorri ziren, eguerdian Usurbeko maldara iritsi eta bertan ospakizunetan parte hartu eta ikusteko aukera zuten: herri kirolak, trikitixa, bertsolariak, eta abar.

Mendizaleen hurrengo irteera irailaren 10ean izango da, Txindokira igoko dira. Eta irailaren 17an, urtero irailako 3. igandean ospatzen den Beasaindeko omenaldira joango dira. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarekin muga egiten duen mendi honetan, urtean zehar hildako mendizale euskaldunei omenaldi bat egiten zaie, bertan meza bat ospatuz. Omenaldia amaitzean Arrasatera jeitsiko dira bazkaltzera. Hilabetea



Iazko Usurbeko jaia.

amaitzeko, azken asteburuan kanpaldi bat antolatu dute Orbaizetako babese-txean. Bertatik Harpeko kobazulora eta Nive Behoroviko erreka irteerak egingo dituzte.

Mendi irteera guzti hauetaz gain, os-tiralero Arana kalean dagoen elkarteak filmina emanaldiak izaten dira. Irteeretan joan ahal izateko elkarteak bertan eman behar da izena. 8 urte baino gutxiagoko umeak arduradun batekin joan beharko dira irteeretan. Animatzea besterik ez duzue.

Igartza auzoko jaiak

Iraila iritsi da eta berarekin batera Igartza auzoko jaiak. Aurten jaiak ospatuko ez zirenen zurrumurrua zabaldu zen herrian, baina zurrumurrua ezeztatu egin da. Jaiak antolatzeko arduradunen erreleboa besterik ez da gertatu. Orainarte Javier Gonzalez arduratzen zen jaietaz, ardura hau bere gain urte batzuetan zehar egon ondoren, orain auzoko gazteen esku geratu da.

Egitarraren aldetik ez dago ia aldatarik. Aurten ez dira suziriak egongo, baina antzerkia ikusteko aukera izango dugu. Gainontzean ez dago aldatarik. Musika ugari, jolasak, txapelketak eta mozorroak. Irailaren 8tik 10era ospatuko dira jaiak, Udalaren eta auzokideen laguntzari esker. (Egitarraren agendan ikusi ahal izango duzue).

'Gazteentzat zine emanaldia'

Gazteri eta Kirol Batzordeak eta honen inguruan sortu den lantaldeak antolatuta, 'Gazteentzako zine emanaldia' izeneko egitaraua jarriko da martxan irailaren 7an hasita. Astero filme bat ikusteko aukera izango da. (Pelikulen berri zehatza agendan daukazu). Sarrrera 450 pezetakoa izango da, 250ekoa Gazte Txartela dutenentzat. Aurrera begira ekitaldi gehiago izango dira, eta gure orrialdeetan izango du tarterik.

 Izaskun Salazar

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

Inprimategia
 **EGUZKI**

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfn: 88 94 82
20200 BEASAIN

Emeterio Sorazu erretorea badoa Zaldibitik

9 urtez Zaldibiko kristatu elkar-tearen buru izan ondoren, Ibarrra joango da Emeterio Sorazu erretorea. Herri zail samarra to-katu zait" inoiz esan badigu ere, balantzea positiboa omen. Parrokiko eginkizunez aparte, bestelako lanetan ere gogoz eta gogor saiatu da. Zaldibiko eta Gaintzako historiaren zati batzuk jorratu ditu. Baina, batez ere, Iztueta Fundazioan aritu da buru-belarri, Juan Inazio Iztueta buruz plazaratu den liburua eta aurki argitaratuko diren beste biren eraketa eta gestio-lanetan.

Erretore berria izendaturik dago. Amezketako semea den Fidel Tolosa etorriko da bere orde. Gure informazioa zuzena bada, Asteasun dago erretore, eta Tolosan bizi da. Irailaren 10ean izango da erreleboa. Egun horretako Meza Nagusia goizeko 11,30etan izango da, Bikario Jeneralak zuzenduko duelarik. Eta ondoren, 13:30etan, lagunarteko bazkaria. Bazkaltzeko txartelak hartu nahi dituenak Trini eta Mari Feren dendetan, edo parrokiko bulegoan bertan aurkituko ditu salgai, irailaren 5era arte. Prezioa: 2.500 peze-ta.

Detenituak libre uzteko eskatu zuen Udalak

Abuztuaren 20an herriko 3 gazte, Oskarbi Jauregi, Urko Galarraga eta Iker Atxotegi, detenitu zituen Guardia Zibila Idiazabal. Hori dela hurrengo egunean Udalak pleno berezia egin zuen, HBk eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak aurkezturiko mozioa eztabai-datzeko. Detenituenganako elkartasuna azaltzeaz bat, pairatzen ariko ziren tratuari buruzko kezka agertu zuen Udalak. "Jakina da oiko jokaera duela atxilotuak torturatzea", eta gerta zitekeenaz Juan Mari Jauregi, Gipuzkoako Gobernadore Zibila, erresponstabilizatu zuen. Mozioak dionez, Euskal Herriko gazteria da bereziki kolpatzen den giza sektorea, "horregatik gogorki salatzen du instituzionalizatuta dagoen jokaera hau". Bestalde, "Urko, Oskarbi eta Ikerren egoera Euskal Herriari 20-GOIERRITARRA



Aurtengo bultzi talde bat.

indarren ukatzen zaizkion eskubide demokratikoen ondorioa baino ez da". Azkenik, hiru gazteak detenturik jarraitzen duten bitartean Udalak interesatzen segituko omen du beraien egoe-raz.

5 boto alde (HBrenak) eta 3 kontra (ZUTenak) zituela onartu zen mozioa. Plenora azaldu ziren 90/100 lagunek eta Jarrai eta Gazte Asabladak ere onartu zuten mozioa.

ZUTek, bere aldetik, HBren mozioa ez onartzeaz gain, puntu hauek ipini zituen mahai gaine: Giza eskubideak errespetatzeko exijentziarik zorrotze-na, eta errespetatuko ez balira salaketarik gogorrena. Gazterien errepresio kontua erlatiboa dela. Euskal Herriak, gehiengoaren bidez, erabakirik omen dauka bere bidea: Estatutua eta horrek ematen duen autogobernua. Euskal Herriaren geroa izango omen da, bestalde, bertako hiritarrek libre eta demokrati-koki erabakitzen dutena.

Esan behar da, kasu honen inguruan beste ekintzarik ere izan dela: manifestazioak, kontzentrazioak, Jarrai eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak jarritako pankartak, eta abar. Horrez gain, Jarrai erakundeak bere komunikatu propioa ere plazaratu du. Eduki aldetik, aprobatu zen mozioaren antz-antzekoa denez, aipatu besterik ez dugu egingo. Azkenik, esan dezagun Oskarbi Jauregi libre atera dela fiantza ordaidu ondoren, eta Urko eta Ikerrek gartzelan segitzen dute.

Bultziek amaitu dute aurtengo ikastaroa

Zaldibian, udan euskara ikastera etortzen direnei Bultziak deitzen zaie. Behin batean kotxea gelditu omen zitzaion ikasle horietako bati, eta, laguntza eskatzean, bultza esan ordez bultzi esan omen zuen; bertakoren bati erruz txokatu eta geroztik udan etortzen diren AEKtarrek Bultziak dira.

Badira hamarren bat urte AEK-k Zaldibian barnetegia antolatzen duela. Aurtun bi talde egon dira. Lehenengoa, uztailaren letik 29ra eta uztailaren 31tik abuztuaren 20ra arte. Kopuru aldetik pisurik handiena, jeneralean, Bizkaia izaten baldin badu ere, aurtun gainerako lurralde historikoetatik ere etorri da ordezkari franko. Mailei dagokionean, 7. eta 8. urratsekoak egon dira lehen txandan; eta 6. eta 7. mailakoak, bigarren txandan, hiruna irakasleren ardurapean, eguneko 7 orduko erritmoan. Klaseak Lardizabal eskolan izaten dituzte, lo Udaletxeko lokaletan eta mantenua, Zubiburu Elkartek prestatzen die.

Euskara ikasteko oso toki egokia jotzen dute Zaldibia, bera ezezik ingurua ere oso euskalduna baitu. Alde horretatik ongi aprobetxatu dituzte Goierri eskaintzen dituen aukerak: Ordiziako azoka, Zeraingo erakusketa, Segurako monumentuak, Aralar mendia, baserri giroa, etab. Bestalde, herrian oso giro ona aurkitu duten kontuak eman dituzte; hain zuzen, kanpo ekin-tzetan herriko jendea inplikatzeko saiatu dira: herri kiroletan, afarietan, euskal poteoa elkarrekin eginez, etab.

Horregatik, oso eskertsu agertzen dira herri osoarekiko, hain harrera ona egin dielako. Beren esker-ona, bereziki, Maixa eta Anabel sukaldariei luzatu nahi liekete, halako pazientzia eta esku apartaz hain plater goxoak prestatu dizkietelako. Jainkoa lagun, datorren urtean, berriro ere, gure artean izango dira hauetako asko. Nahi duzuen arte!

 Rufino Iraola

17 ume berri eskolan

Bukau diela barkaziok! Astelehenean hasiko da ikasturtea eta aurten lehenbiziko aldiz 2 urtekoak ere, eskolara bidean izango dira.

2 urtekoak 8 izango dira eta urrian hasiko dira: Naiara Alberdi, Iker Arrondo, Saioa Arza, Mikel Etxeberria, Laida Olano, Eki Sukia, Ianire Sukia eta Harriet Zaldua.

3 urtekoak berriz 9: Asier Agirre, Eneko Albisu, Mikel Arratibel, Oñeka Auzmendi, Ane Dorronsoro, Mikel Dorronsoro, Joseba Etxeberria (hau Realekoa da), Josu Munduate eta Ioritz Urdangarin.

Guztira 123 haur izango dira Eskolan eta iaz bezala 13 irakasle. Bi andereño berri etorri dira Marikarmen Aranburuk eta Marijose Albisuk utzitako postuak betetzera: Edurne Txopereña donostiarra eta Jasone Osinalde lazkaotarra.

Ikasturtea astelehenean, irailak 11, hasiko da. Irailaren 22rarte bakarrik goizetik ibiliko dira. Irailaren 25etik aurrera goiz eta arratsalde. 2 urtekoak, urriaren 2 hasiko dira goizez ordu pare bat.

Langile berriak herrian

Jende askok eman du izena, herriak bete nahi dituen bi lanpostuetarako. Administrazio laguntzailetarako, 111 pertsona dira nor ala nor, eta Zeregin Anitzeko Langile posturako 15 dira. Aurreko asteazkenean, hilak 6, egin zen euskarako azterketa Eskolan. Ondoren etorriko dira beste azterketak.

Udalak, gaurkoz 7 lanpostu dauzka eta bi berri hauekin, 9 izango ditu.



Ajarresta, baserri zaharrena, gaur egun borda da.

Baserriak gutxiago

Ataunen dana baserrie izango dek! Ataundarra al haiz, baserriko semea ordun? Horrelako kontuak sarritan entzun ditugu. Garai batean hala izan zen, baina gaur behintzat ez.

Gaur egun, herrian baserria baino etxe gehiago dago. Etxeak 169 eta baserriak 141. Batzuk berri-berriak, beste batzuk zaharrak, benetan zaharrak. Iraun dezatela. Ataungo baserri zaharrenetakoak hauek dira: Suki, Otadizelai, Ajarresta (gaur egun borda), Barandiaran, Urrestarazu, Larraza, Urdangarin, Astigarraga, Arrondo (desagertua), Baztarrika, Arin, Dorronsoro, Telleri-Azpikoa eta Arrategibel. Don Juan Txiki zenak zionez, orain mila urte baziren baserri hauek. Oraintxe, agorraren lehenen bete dira 23 urte Don Juan Txiki hil zela. Zordun gea oaindio!

Ibilaldi neurtua

Aspaldiko ohitura berreskuratuz, Ibilaldi Neurtua antolatu dute Kirol Elkarteak, Oargi Troskaetak eta Udalak elkarrekin. Hilaren 17an izango da.

Jende klase guztientzat prestatu dute. Ibilaldi oso polita. Ataungo bazter batzuk erakutsi nahi dira, batez ere Joxemiel zenarekin zerikusia dutenak. San Martingo plazan izango da irteera goizeko 8etan baina San Gregoriotik barrena, koba, hila, etxe, gaztelu, karobizulo, ohitura-zahar etabar ikusteko aukera izango da.

Taldeak 2 edo 3 lagunekoak izango dira. Partaide guztiei diploma emango zaie eta ez da sailkapenik izango. Ibilaldia bukatutakoan, Joxerramun

Agirre 'Marron' en argazkiak ikusteko aukera izango da Udaletxean.

Antolaketa lanetan lagundu nahi duzenok, agertu larunbata, hilak 9, goizez Oargira. 20-25 lagun behar dira.

Hezurak biguin

Zai daukazue Pako Urrestarazu, burua argi eta belaun-gerriak arin eduki nahi dituzuenok. Hirugarren Adinekoen eta mantenimenduko ikastaroak antolatu ditu eta horrekin batera gimnasia-soinetakoak ere bai. Aurten gainera, San Gregorion taldea osatuko balitz, han ere izango litzateke ikastarorik.

Zerbait gehiago nahi baduzu, deitu Pakori, batez ere arratsalde, 18 03 84 edo 18 04 06 telefonora.

Heriotza

Antonione-Azpikoa edo 'Artzane' deitzen diogun etxeko, Justa Aiestaran Urruzola hil zen agorraren lehenbizikoan. 85 urte zituen. Atsekabea lagun familiartekoei!

 Jon Aizpurua



Tfona: 885500 ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen taldea

Autoelektrizitatea eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
88 80 23

LAZKAO

Gripearen eta tetanoaren aurkako txertoak

Aurreko urteetan bezala aurten ere, udazkena inguratzen ari dela eta, herritarrei jakinarazi nahi zaie gripearen aurkako kanpainari laster ekingo zaiola. Aurtengoari dagokionez, hil honetako 18an hasiko da urriaren 31 arte luzatuko da, eta bereziki 65 urte baino gehiago dituztenek eta gaixotasun kronikoa dutenek hartu behar dute.

Santa Lutziko kontsultan egunero jarriko da txertoa goizeko 11.30etik 12ak arte eta Gabiriakoan ostegunetan 11etatik 11.30ak arte. Dena dela, Gabiriako kontsultan txertoa hartzeko alde aurretik Zumarragako 72 49 00 telefono zenbakira deitu behar da, edota kontsultaren batean sendagileari berari azaldu asmo hori, ahalik eta erarik egokienean antolatzeko.

Honetaz gainera, sendagileak egoki irizten dio tetanoaren aurkako txertoa ere jartzeari. Batez ere, jende helduak eta gainera beste txertoarekin batera jar daiteke, gaixotasun hau nekez ematen bada ere oso larria baita.

Josu Amundarain gazta-lehiaketan irabazle

Andra Mari jaiak direla eta, urtero gazta-lehiaketa egitea erabaki zen iaz herriko artzainen artean. Hau dela eta, aurtengo lehiaketa honetara 8 gazta aurkeztu dira eta irabazlea Josu Amundarain gaztea izan da; bigarren, Irubi-



deko Gabriel eta hirugarren, Baztarrikako Amelia.

Puntuazioari dagokionez, lehenengoaren eta bigarrenaren artean ez zen alde handirik izan. Irabazleak adierazi zuenez ardi dexente izan arren, ez

dute gazta askorik egiten, esne gehiena saldu egiten baitute eta lehiaketa honetara aurkeztu zuen gazta apirilaren amaiera aldera egindakoa omen zen.

Igor Aranburu lehenengo

Txirindularitzari dagokionez, urtero bezala Ormaiztegitik Gabiriako igoera jokatu zen eta aurtengoan irabazle Igor Aranburu izan zen. Dena den, Igor federatua da eta federatuak ez direnen artean Iñigo Andolak lortu zuen lehenengo saria eta Mikel Osinaldek bigarrena eta tarteko helmugako saria ere Mikelek irabazi zuen. Sari hauetaz gainera, lehenengo emakumeari, lehenengo zaharrenari eta gazteenari ere sariak banatu zitzaizkien.

 **Gabino Murua**



ZEGAMA

Udala lanereko prest

Udako oporrak eta herriko jaiak igaro ondoren, urtean zehar herriaren zerbitzurako lanei gogoz ekin diezaiegun, Udal-Gorporazio honen konposaketaren berri jakinerazi nahi dizuegu.

Uztailaren 13an Udal-Gorporazioa bildurik, Alkateak, zinegotzi bakoitzari Batzordeburu lana eskeini zien. Herri Batasunak zinegotziek uko egin zioten Batzordeburu izateari, eta baita ordezkariak hartzeari ere. Honen ondorioz horrela osatu zen Udal-Gor-

porazio hau: Alkatea: Asun Mendizabal; Alkate-ordea: Miren Arantxa Albizu; 2. Alkate-ordea: Juanjo Gorrotxategi; Mendiak, Zerbitzuak eta Lan Sustapena: Segundo Oiarbide; Hiritzinta: Inazio Urbizu; Kultura eta Baliabideak: Miren Arantxa Albizu; Kirolak, Sanitate eta Ingurugiroa: Juanjo Gorrotxategi; eta Hazienda eta Gizarte Zerbitzuak: Asun Mendizabal.

Beste erakunde batzuetako ordezkariak horrela gelditu da banatuta: Eu-

del eta Kontsortziorako ordezkaria Asun Mendizabal; Goieki: Juanjo Gorrotxategi; Goierri: Miren Arantxa Albizu; Goimen, Sasieta eta Partzone-ria: Segundo Oiarbide; eta Eskola Berrien ordezkariak: Inazio Urbizu.

Batzordeak irekiak izango direnez, nahi duenak izena eman dezake idazkaritzan, irailak 8 baino lehen.

 **Edurne Albizu**



Luix Lezetak eta Joxe Manuel Ormazabalek ez dute ezagutu honelako patata urterik. Urtero bezala "Galartzanen" patata hazia erosita betiko moduan erein eta zaindu dute bere patata saila.



Patatatzararak

Oria ibaiaren ertzeko baratza emankorretan kilo t'erdi pasea duten bi patata ale jaso dira aurtengo udan. Bata Luix Lezetak presa ondoan duen baratzean eta bestea Joxe Manuel Ormazabalek Santa Engrazin duenean. Biak ala biak kutixi bereziagorik gabe erein eta zainduak. "Bustie baño leorra naigo dik patatek" diote Santa Engraziarrek. "Patatea osoik ta ernamuñe goraka dola ereitten diat beti, geo ximaurre bota gañetik" dio berriz Luixek. Ilargiak ere beste hainbatetan eta hainbatengan bezala ba omen du eraginik. Luixek Aldatagoeneko Gregoriori entzuna dionez, ilbeheran ereinda ale handiagoa baina kopuru exkaxagoa etortzen da, ilberrian ereinda berriz, patata gehiago baina ale txikiagoak.

Ekintza ugari

Pasa den asteburuan, Arantzazura egindako urteroko peregrinazioa, Eloorri Kultur Elkarteak antolatuta Urruñako jaietara egindako egunpasa, eta usakume tiraketaz gain, bada aktibitate gehiagorik datozen egunetarako.

Auzo afaria

Arantzazu barriokoek irailaren 9an, 8etan auzoan hildakoen alde emango den mezaren ondoren, bertan bizi, lan egin, edo jabetzaren bat dutenen arteko afaria egingo dute. Urtero bezalaxe, portikopean elkartuko dira, entsalada eta oilaskoa familia bakoitzak eramango dituelarik etxetik. Afalondoa auzoko txistulariek animatuko dute. Iazko afaria 500en bat pezeta kosta ziztaion bakoitzari.

Lourdesera egunpasa

Irailaren 10ean urtero egin ohi den bidaia antolatu da Lourdesera. Irteera goizeko 6,30etan izango da Jermanenetik gaueko 11,00ak aldera bueltatzeko. Informazio gehiago Jermanenean bertan edo 801003 telefonoan.

Ehiza

Irailaren 10ean goizeko 10,30etan egingo da Udaletxean urteroko ehiz postuen subasta. Subasta honetatik kanpo geldituko diren eta partzoneriko udalerriei dagokien ehiz postuen zoz-

keta irailaren 1ean egin zen. Bertan segurarrei Apota 6 eta 10, Larrebil 7, Iturgain 5 eta 7, Ultzama 4, 10 eta 12, Aratz 9, Portugain 2, eta Lixibaleku 1 egokitu zitzaizkien. Postu hauek irailaren 5ean zozketatu ziren bikoteka herriko ehiztarien artean.

Futbola bazkide beharrean

Herriko eta inguruko gazteekin Segura futbol taldekoak egiten ari diren lan eskergabea kontutan harturik, herritarrei bere aportazioa eskatu nahi diete bazkide egin daitezen animatuz. Prezioak zehaztu gabe badaude ere, iazko modukoak izango dira. Taldean jokatu nahi dutenak eguneroko entrenamenduetara azal daitezke, rejonalerako 1976 aurrekoak, jubenilak 1977-79 bitartekoak, kadeteak 1980-81ekoak eta infantilak 1983-84ekoak.

Segura tradizio bizia

Segurari buruzko erakusketak eta bixita gidatuek hilabete daramate martxan. Tarte honetan adin eta jatorri ezberdinetako 650 pertsona pasa dira. Irailean ere zabalik egongo da asteburuetan 11,00etatik 13,00era eta 16,00etatik 18,00etara. Astebarruan etorri nahi ezkerro aurrez 801006 telefonora deitu.

Jose Ignazio Gerriko

Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) Mutiloan apaiz egon zen idazle segurarrari buruzko liburua argitaratu da. V. Gerriko ikerlan-sariketa irabazi zuenetako bat da, eta "Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplikazioaren sayaquera (1858)" izenburupean idazlearen biografia eta bere lana ikertu dira.

 Joseba Telleria

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g 888824
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. 886070
BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfona: 880243 - 880133
BEASAIN

III. San Andres pala txapelketari hasera eman zaio

Oporraldiaren amaierak herritarrek ohizko lanera itzultzeaz gain hainbat ekitaldien hasera ere ekarri izan digu. Iraileko lehen egun hauek III. San Andres pala txapelketari hasera eman diote lehenengo bi partidua hilaren 4ean Zubipe polikiroldegian jokatu ziren.

Aurtengo parte hartzaileak 16 bikote dira, berauekin bi talde hauek osatu direlarik: A taldea, 1. Txurtzil-Alex, 2. Murua-Aramendi, 3. Soto-Karterone, 4. Izagirre-Urdangarin, 5. Merzero-Azkarate, 6. Olan anaiak, 7. Patxi-Txarli, 8. Irizar-Goikoetxea; B taldea, 1. Ahoa-Saña, 2. Gorostidi-Apaolaza, 3. Lasa-Murua, 4. Kanpos-Lasa, 5. Manolo-Agustin, 6. Plagar anaiak, 7. Gari-Koldo, 8. Elozegi anaiak.

Partidua astelehen, ostegun eta igandeetan jokatu dira. Egun bakoitzean bi partidua jokatu dira, lehenen-



goa 8etan hasiz eta bigarrena 9etan. Irailaren 10ean Izagarri-Urdangarinek Patxi-Txarliren aurka jokatu dute. 2. partiduan Kanpos-Lasak Gari-Koldoren aurka neurtuko dituzte beraien indarrak. Irailaren 11n Soto-Karteronek, Irizar-Goikoetxearen aurka jokatu

dute. Ondoren Elozegi anaien Gorostidi-Apaolazaren aurka. Irailaren 14ean Soto-Karteronek Irizar-Goikoetxearen aurka. Lasa-Murua Elozegi anaien aurka. Irailaren 17an Manolo-Agustinek Ahoa-Sañaren aurka, bigarren partiduan Merzero-Azkarate Txurtzil-Alexen aurka.

Gogoratu, San Andres pala txapelketa 1993. urtean hasi zela bertan garaileak J. Lasa eta I. Murua izan zirelarik. Iaz 14 bikote hartu zuten parte, bertan irabazle Simon Idiakez eta Imanol Olan gertatu ziren, bigarren J. Lasa eta I. Murua izan zirelarik. Aurtengoan partaidetzak gora egin du eta guztiek San Andres festetan jokatu den finalera iristeko itxaropenaz ekin diote aurtengo txapelketari.

Aitziber Murua

EZKIO-ITSASO

Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketa

Uztailaren 30ean Mandubiako gainean Gipuzkoako XXVII. Artzain Txakur Txapelketa ospatu zen ondoko emaitza hauekin: irabazlea Arrasateko Jesus M. Plazaolaren "Mendi" txakurra; bigarren postua "Txiki" txakurarentzat Jose Antonio Arrillagaren agindupean, eta hirugarren tokian "Lagun" Pedro Segurrolarena.

Txapelketa kalitate eta ikusizun handikoa suertatu zen, non bi lehenengo postuak erabakitze txakur bakoitzak egindako denborak kontutan hartu behar izan baitziren,



puntutan berdinduak gertatu ziren eta. Datorren irailaren 17an Euskadiko

Artzain Txakur Txapelketa Mañarian ospatuko da; bertan Gipuzkoa izango da partaide gehien aurkeztuko duen lurraldea, aurtengo txapelduna eta azpitxapelduna eta iazko Euskadiko irabazlea "Nere" txakurra, Jesus M. Plazaolarena bertan izango direlarik. Eta aurtengo txapelketa nagusienak bukatzeko, irailaren 24an Oñatiko Nazioarteko Txapelketa izango da.

Pilare Mujika



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etzea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasan belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-nondon.

MONTXO MUNDUKO WU-SHU TXAPELKETAN GARAIPENETIK OSO GERTU “Konzentrazioa guztiz garrantzitsua da borrokan”

Ramon Quina Martin ‘Montxo’, 23 urteko lazkaotarrak Baltimoren (EEBB) ospatu den munduko Wu-shu (Kung-fu) txapelketan 4. postua lortu du. 10 urtez ari da Wu-shua praktikatzen, gerriko beltza da, azken hiru urtetan Espainiako txapelduna da “forma” eta ohizko konbateetan, eta Europako azken txapelketan 2. eta 4. postuak lortu ditu.

Abuztuaren 21ean hegazkina hartu eta 5 egun iraungo zuen menturan barneratu zen. Txapelketan 58 nazio eta guztira 600 partaidek hartu zuten parte. Gure gaurko protagonistak, 60-65 kilotako sailean parte hartu zuen beste 31 gazterekin batera. Borroka bakoitzak 2 minutuko iraupena zuen eta bat balduz gero kanporatua izango zen. Gure lazkaotar txapeldunak peruar eta mexikar bati irabazi ondoren, argeliar baten aurka borrokatu zen; baita irabazi ere. Baina “hortz bat hautsi eta ezpainetan 5 puntu eman zizkidatenez, medikuak ez zidan lehiaketan aurrera jarraitzen utzi. Beraz final aurreko eta finalera ezin izan nintzen aurkeztu eta postu hobeago bat lorte ote nezakeen kezka hor daukat”, aitortu digu Montxok. Mota honetako lesioak oso arruntak dira munduko txapelketa batetan. Montxok adierazi digunez, “lehen egunean 20 partaide eritetxera eramán zituzten, nahiz eta babes moduan boxeoko guanteak, kasko, bukala, petoa eta kokila bat erabili”. Hori bai, jendeak uste ez badu ere, txapelketa eta gimnasiotik kanpora, Wu-shua praktikatzan dutenak oso lasaiak izaten dira, eta partaide guztien artean gainera, oso harreman ona dago.

Baina gure txapeldunak gaur sentitzen duen poza, ordu eta urte askotan egindako lanaren emaitza da. Berak azpimarratu digunez, “konzentrazioa oso garrantzitsua da eta are gehiago mundial batetan. Goizez pesak eta fi-



Lazkaotarra 4. geratu zen munduko txapelketan.

sikoa landu, eta arratsaldean borrokako tekniketan jarduten gara. Estresik gabe, 15 egun soilik entrenatzen, jo eta ke. Ezin duzu goizez lanik egin eta gero entrenatu”. Baina Montxok, 70-75 kilotako sailean 5. postua lortu duen Jose M. Beldarrain tolosarrarekin Eibarren ireki duten gimnasioan okasio oso aproposa du entrenatzeko. Hor ikus daiteke beraz, Montxok kirol honi dion maitasuna. Hauekin batera, beste lazkaotar batek, Luis Alfredo Barrasak, hartu zuen parte txapelketan 12. postua lortuz “formetan”.

Kung-furi buruz esan daiteke, “zerbait ondo egina denbora luzean” esan nahi duela eta nolabaiteko filosofia ere badu. Gorputza eta arima harremanetan jartzen dira eta Tai-chi, Shuai-jia eta defentsa pertsonala eta antzerako kirolak, guztiak jasotzen ditu.

Arte martzialak oso gogoko

Montxok bere hasiera deskribatzen digunean oso ondo adierazten digun bezala, “arte martzialen mundua asko gustatzen zitzaidanez, Beasaingo ‘Lo-

rea’ gimnasioan hasi nintzen Jose M. Ruiz Jimenez maixuarekin eta denborarekin hoberenetariko eta osoenetariko kirola dela konturatu nintzen, hori bai, beste kirolei atzera egin gabe”. Bere idoloa Bruce Lee den galdegin diogunean, ezetz dio eta filmeak errealtatetik oso urrun daudela. Bere idoloa, bere maixuaren maixua da, Estatuko aukeratzailerak den Lan Chueng Ping hain zuzen ere. Bartzelonan bizi den txinatar hau da gainera gure Montxoren garaipenaren errudun, azken egunetan berekin entrenatu baita.

Esan beharra dago gainera, Euskadik baduela Wu-shu taldea. Jose M. Ruiz maixuak Wu-shua Bartzelonan ikasi eta Euskadira ekarri zuen. Gaur egun gainera Espainiako txapelketan birrindu egin ditu beste talde guztiak. Montxok adierazten digun moduan, “oso maila ona dago hemen, azken bi urteetan Estatu mailan onena izan baita”.

Baina ez pentsa mutilen kirola soilik denik Wu-shua, neskek ere praktikatzen dute, maila txikiagoan bada ere.

Aipatu, lan guzti honen ondoren, diploma eta domina bat besterik ez dutela jasotzen irabazleek. Gainera, kirolari hauek nahiz eta Judoko federazioaren barne aurkitu, ez dute inolako diru laguntzarik jasotzen. Lazkaoko Udalak, Ordizia Bidaia eta Diario Vascoren laguntzari esker bidaiaren parte bat kubitutute.

Amaitzeko, bere azken helburua lortuko duelakoan agurtu gara: “97an Belgikan izango den munduko txapelketa irabazi eta hurrengo urtean Europako txapelketa. Gainera Baltimoren txapelketa bukatzeko aukerarik izan ez dudanez, duda hor daukat, postu hobeago bat lor ote nezakeen”. Ea ba, animo gure txapeldunarentzat!

 Iraida Martin

Mari Jose Lasa, Garindik Jordaniara

"Lehenengo aldiz Kazetaritza ikasten ari nintzela (79-80 urtean) atera nintzen kanpora. Suitzara joan ginen lagun bat eta ni, lan egin eta diru piska bat ateratzeko. Hurrengo urtean bakarrik joan nintzen berriro Suitzara. Lagunak egiten hasi nintzen, zirkulu bat egin nuen. Kazetaritzako azkenengo bi urteak hanka bat Suitzan eta bestea Leioan pasatu nuen. Semiologia asko gustatzen zitzaidan. Ginebran Fakultate on bat dago eta han matrikulatu nintzen Kazetaritza amaitu ondoren". Suitzan ezagutu zuen gaur egun bere senarra dena, tuniziarra bera, eta orduz geroztik, hara eta hona dabil Mari Jose Lasa garindarra (Beasaingo auzoa). Garindik Suitzara, Suitzatik New Yorkera, handik Irakera, eta Iraketik Jordaniara. Horixe da harrez gero Mari Josek egin duen ibilbidea. Hori bai, urtero Garina etortzen da.

Senarra nazioarteko funtzionarioa da eta Nazio Batuen egoitzetan egiten du lan, itzultzaile gisa. Bi alaba eta seme baten gurasoak dira: Lamia, Omar eta Ines. Jatorriz bi nazio, hizkuntza eta erlijio ezberdinetakoak. Urtero Euskal Herrira eta Tunisiara joaten dira. "Niretzat sakratua da urtero Euskal Herrira etortzea. Niregatik baino gehiago haurrengatik etortzen naiz. Seme-alabek benetako kultura mistoa izatea nahi dut. Euskara eta arabiarra jakitea nahi dut. Zeren nahasketa, nondik zer daukaten eta nondik zer datorkien jakitea nahi dut.", esan digu Mari Josek. Haurrek amarekin euskaraz hitz egiten dute, aitarekin arabiarrez, eta eskolan frantsesa eta ingelesa ikasten dute.

Kazetaria izaki eta bizi den lekua kontutan izanda, Euskadi Irratiaren berriemal berezi lana betetzen du. "Lo-



tura oso ederra da berriemal lana. Hemengo ikuspegitik juzgo bat egitea behartzen nau lan honek", aitortu du. Mari Joseren arabera, "horrelako bizitza motarekin profesioa kostatu zait urte batzutan behintzat. Alaba txikiena koskortzen denean, idazten hasteko asmoa daukat".

Gizarte ezberdinetan bizi izan da eta ondorio honetara iritsi da Mari Jose: "Ezberdintasunak baino berdintasunak gehiago dira. Turista bezala joanda desberdintasunak ikusten dituzu. Denbora gehiago herri batean pasa eta pilatzen dituzun esperientziekin, berdintasunak gehiago nabarmentzen dira. Azken funtsean gizabideak eta gizaerak oso berdintsuak dira. Gehiago esan nahi du zenbat dirurekin bizi zaren, non eta nola bizi zaren baino".

Guk ditugun emakume musulmanei buruzko topikoez berriz, zera esan digu garindarrak: "hemen esaten da 2. mailako izakia dela hango emakumea, eta egia da. Gizarte oso patriarkala da Jordaniakoa. Emakume askok lan egiten dute, behar dutelako. Ume asko iza-

ten dituzte. Normalean ez dago askatasunik kalean ibiltzeko. Sexuen segregazioa ez dago legean idatzita, baina bai gurasoen buruetan. Hemen orain dela 40 urte gizarte katoliko estu hartan izan zitekeen maila berdina dago". Integritasun ere goraka doa, "gazteen artean batez ere. Ez dut esango hori aurrera edo atzera egitea denik, horiek gure baloreak dira eta ez eurenak. 10 nesketatik 6 burua estalita joaten dira unibertsitatara. Gehienek nahi dutelako eramaten dute eramaten dute be-lloa", azpimarratu du. Momentuz behintzat atzerritarrek ez dute inongo arazorik Jordanian. "Oso harrera ona egiten die kanpotarrei. Beraien tradizioa da, beraientzat sakratua da kanpotarrak onartzea, jaten ematea eta sekulako zeremoniak egitea. 'Gustora bizi al zara hemen?' galdetzen dute beti eta onartua sentitzen zara. Gainera oso kanpozaleak dira, ahal dutenean kanpora ateratzen dira".

Euskal Herrira bizitzera etortzea zaila ikusten du Mari Josek, "nolaz eta senarra ez den lanik gabe gelditzen". Dena den, ez zaio gogorra egin garindarrari etxetik hain urruti bizi behar izatea. "Betidanik gustatu izan zait batetik bestera ibiltzea. Gogorra egiten zait hona etorri eta joan behar dudanean. Baina egia esateko, oporrak bukatzen direlako da gogorra. Haurrak oso gustora ibiltzen dira Garinen eta beldur naiz Jordanian pixu batean nola errendituko ote ditudan. Nahiko lasai bizi gara han, eta neri gustatzen zait. Noski, prezio altua dauka, eta ez pentsa dena zoragarria denik. Alde guztietan daude gauza onak eta bestelakoak".

 L.A.



MAIZPIDE
euskaltegia

IKASTAROAK URTE OSOAN

- **BARNETEGIA:** egunean 6 klase
- **BESTE BATZUK:** egunean 2, 3, 4 klase (goizean, arratsaldean, iluntzean)

MAILA GUZTIAK HABEren laguntzaz

Matrikula epea irekita. Deitu eta eman izena!

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO



67-68ko idiazabaldarrak

77-78 ikasturtean ateratako argazkia da Martin Mendizabalek bidali diguna. Harrez gero euri asko egin du. Ai, nolako garaiak ziren haiek!

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Arantxa Oiarbide, Pili Oiarbide, M. Karmen Aldanondo, Zezilia Arregi, Pepita Lardizabal (andereñoa), M. Jesus Contreras, Maria Isabel Lasas, Lurdes Intxausti, Anabel Gil, Arantxa Goia, M. Jose Santamaria eta Marzelino Ormazabal.

Erdiko lerroan: M. Luisa Aizpiorea, M. Koro Lasas, Amaia Aranburu, Ana Rosa Sarasola, Arantxa Aranburu, Ana Mari Fernandez, M. Jose Legorburu, Jose Antonio Perez, Bikensi Arregi, Daniel Minguez eta Alberto Contreras.

Behoko lerroan: Carlos Aizpurua, Roberto Arribas, Jose Luis Larrañaga, Inazio Gonzalez, Jesus Mari Aldasoro, Juan Mari Iparragirre, Migel Mari Oiarbide, Migel Angel De Pedro, Jose Angel Aizpiorea, Martin Mendizabal eta Jokin Goia.

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

MIRENTXU LIBURUDENDA

Kurtsoa ondo hasteko behar duzun guztia!

Liburu eta eskolarako gaiak

Nagusia, 1

☎ 88 14 57

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 88 04 55

ILEAPAINDEGI
MISTOA
Xerlo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN


TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILLERRA

B i O K, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR
DE FERROCARRILES, S.A.

**BILBOKO
METRORAKO
LEHEN
UNITATEA**

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08